


INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA, 2015eko URTARRILA

Euskal AEko industri jarduera %3,0 gehitu zen 2015eko urtarrilean

Aurreko hilarekin alderatuta %0,5 gehitu zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2015eko urtarrilean %3,0 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, 2014ko hil beraren aldean. Urtaroen eragina zuzenduta, %0,5 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2014ko abenduarekin alderatuta.



2015eko urtarrilean, 2014koaren aldean: Energian %12,0ko hazkundera; Bitarteko ondasunetan %1,5, Kontsumokoetan %9,0. Azken hauen barruan, Iraunkorretan %22,1, Ez-iraunkorretan %4,9. Ekipo ondasunen indizea %3,1 jaitsi zen.

2014ko abenduaren aldean, 2015eko urtarrileko hil arteko aldakuntza positiboa izan da industri sektore handi gehienetan. Energia %11,4 gehitu da, Bitarteko ondasunak %3,4; Kontsumo-ondasunak %3,9. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %4,9 gehitu eta ez-iraunkorrak %3,6. Ekipo ondasunak %7,9 jaitsi.

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak 2015eko urtarrilean, urte artean: Energia elektrikoa gasa eta lurruna %9,2 gehitu da; Elikagai industriak, edariak eta tabakoa %4,6; Metalurgia eta metalezko produktuak %3,3.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko aldakuntza-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	3,3
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	9,2
09 - Kautxua eta plastikoak	-1,4
13 - Makineria eta tresneria	-5,9
14 - Garraio-materiala	-6,7
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	4,6
12 - Material eta tresneria elektrikoa	1,9
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-0,5

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea (IPI)

Jaitsierarik handienak urte artean: Garraio materiala %6,7; Makineria eta ekipoa %5,9.

Urtarrileko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da Araban, %-6,8. Bizkaian %6,1 gehitu; Gipuzkoan %5,2. Hil artean, 2014ko abenduaren aldean: Araban %-0,4, Bizkaian %+1,4, Gipuzkoan %+0,1.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Aldakuntza-tasak. Behin-behineko datuak. 2015eko urtarila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Urt2015/Urt2014	M(Urt2015)/M(Urt2014)*	Urt2015/Abe2014	Abe2014/Aza2014
Indize orokorra				
Euskal AE	3,0	3,0	0,5	0,8
Araba/Álava	-6,8	-6,8	-0,4	-3,4
Bizkaia	6,1	6,1	1,4	-0,1
Gipuzkoa	5,2	5,2	0,1	4,0
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	9,0	9,0	3,9	0,5
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	22,1	22,1	4,9	7,4
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	4,9	4,9	3,6	-1,9
Ekipo-ondasunak	-3,1	-3,1	-7,9	5,9
Bitarteko ondasunak	1,5	1,5	3,4	-2,1
Energia	12,0	12,0	11,4	-6,8

(*) 2015eko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2014ko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea (IPI)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko datu-bankua